



Langile autonomo eta enpresa txiki asko gara gure herriko ehun sozioekonomikoa osatzen dugunak, eta osasun-krisiak krisi ekonomiko sakon eta bat-batekoan murgildu gaitu. Dendak, tabernak eta jatetxeak, landa-ostatuak, ile-apaindegiak, masajistak, gimnasioak, akademiak... Denak pertsianak jaitsita, gastuekin, diru-sarrerarik gabe, eta, kasurik onenean, estatutik eta aldundietatik gaizki eta berandu iristen diren laguntza urriekin; gure negozioetako batzuek jaitsitako pertsiana horiek berriro igo ahal izatea lortuko ez duten laguntzak.

Estatu- eta autonomia-politikek huts egiten dutenean, gure begirada hurbileneko erakundera itzultzen dugu, gure Udalera, bere aldetik herritarren arazoetara hurbilketa errealago baten zain. Baina erantzuna ez da iritsten, proposamenak motz geratzen dira berriro, eta sentimendua babesgabetasunarena eta abandonuarena da berriz ere. **Soberan dago esatea denok ez gaudela egoera berean eta egongo dela laguntzarik behar ez duenik, laguntza ekonomikoa edota bestelako babesa behar duenik, baina denok dakigu kasu hauetan elkartasuna funtsezkoa dela eta, horregatik, jardunean dauden pertsonak ere dokumentu hau sinatzearen alde egin dute.**

Elkar ezagutzen dugun herria gara; izena eta aurpegia jar diezagukezue egoera horretan gauden guzti-guztiei. Gu gabe Orozko ez litzateke berdina izango; batzuek herriari zerbitzuak ematen dizkiogu, gure nekazaritza eta abeltzaintza tradizioarekin jarraitzen dugu edo kalitatezko turismoa hartzeko eta gure herriko lan aukerak dibertsifikatzeko lan egiten dugu. Guztion artean gure herriaren nortasuna sortzen laguntzen dugu eta horretan jarraitu nahi dugu. Udal esparrutik konfiantzazko boto bat emateko unea da, gure lana aitortzeko eta gure lanarekin jarraitu ahal izateko laguntza behar dugula ulertzeko. Ez dugu limosnarik eskatzen, ezta inork merezi ez dugun ezer ematea ere. Hemen modu duin batean lan egiten eta bizitzen jarraitu nahi dugu.

Uste dugu udalak badituela hori posible egiteko tresnak eta baliabideak. Hori egiteko gogoia ere baduela sinetsi nahi dugu. **Orain, ekimena duen eta beldurrik ez duen udal bat behar dugu, jarduera eredugarriekin eta gure herriak zulo hau gainditzeko eta duela hilabete pare bat baino ez zenaren antzekoena izateko prest dagoena. Udal bat, uste duena laguntzak ez direla gastu bat, inbertsio bat baizik. Inbertsio bat bere herrian eta bere jendearengan.**

Horretarako, ezinbestekoa dela uste dugu:

- Epe laburreko likidezia-arazoak konpontzea, gure jarduerarekin jarraitu ezin dugun eta/edo gure diru-sarrerak nabarmen murriztu ditugunoi laguntza zuzenen bidez.
- Udal-zergen ordainketak deuseztatzea.

- Estrategia serioak osasun-krisiak gehien eragindako sektoreak suspertzeko.

- Krisi-garaian enplegua babesteko politikak, orduan behar baitugu benetan.

Babesa behar dugu; izan ere, bestela, kalera irten eta ospatzera joan nahi dugun tabernak ezin izango du ireki, hainbeste behar genuen masajea ezin izango dugu Orozkon eman, gu ikustera etorriko ziren lagunek ezin izango dute hemen ostatu hartu, edo ikasketetan errefortzua behar duten ikasleek beste herri batera joan beharko dute. Eta hau dena asko alda daitekeenaren adibide pare bat besterik ez dira. **Kontua ez baita gutaz bakarrik, kontua da nola nahi dugun Orozko izatea guzti hau bukatzen denean.**

ENEKO TABERNA
EKILORE
RESTAURANTE IZA
ARITZ AMORRORTU ETXEBARRIA
COCINAS Y BAÑOS ANGEL
CHESIL ENGLISH SCHOOL
URIGOITIKO TXORIZOAK
INADE
ARRUGAETA SL
BELDIO FISIOTERAPIA
LUTHIER CARLOS G.BARRÓS
MADERAS TORRESAR SA
BAR RESTAURANTE TXOMIN
YOLANDA
KIROSASUN K.A.F.S
TINTORERÍA MERTXE

HOTEL OSABARENA
TABERNA ITXINA
BATZOKI OROZKO
PELUQUERÍA ADATS
ARTIÑANO ETXEA
KREAGUNE
JABI BARRONDO
EZPELABARRI
AGROTURISMO GARAI
PATXIKOREN ETXEA
PINTURAS OROZKO
ELECTRICIDAD LARREA
CASA RURAL ETXEGORRI
PINTURAS OROZKO
PELUQUERÍA ASDIMAR
TOMATES OROZKO

ITXINAPEKO OKELA
ALBERTO BENGOTXEA
FLORISTERÍA AMAIA
CRISTALERÍA LEGARRETA
ANA AÑIBARRO
IZA OKINDEGIA
BURRULLAGA SLU
CAFETERÍA ZUBIAUR
GOZATZEKO EZTIA
DONDE SEGUNDO
GABINETE ZUBIA
GURE ARRAINDEGIA
PELUQUERÍA XABIER
TALLERES MOLEGAR SG